

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Euskera-ikasketak egiteko laguntzak arautzen dituen oinarrien behin betiko onespena

Udalbatzak 2026ko uztailaren 13an egindako bilkuran hartutako erabakia jendaurrean jartzeko epea igaro da. Erabaki hori 2026ko uztailaren 20ko 82 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen, euskera-ikasketak egiteko laguntzak arautzen dituen oinarrien hasierako onespenerari buruzkoan, eta, horren barruan ez denez inolako erreklamaziorik aurkeztu, ordura arte behin-behinekoa zen erabaki hori behin betiko bihurtzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, erabakia osorik argitaratzen da, behin betiko bihurtuta.

Zalduondon, 2026ko irailaren 3an

Alkatea

LURDES LEKUONA LABURU

Zalduondoko Udala
Zalduondo (Araba)



Ayuntamiento de Zalduondo
Zalduondo (Álava)

Arbin Kalea, 3 • PK 01208 • IFK. P-0107000-B • Faxe 945 314534 • Elektronikoa : azalduondo@ayto.araba.eus

EUSKARA IKASTEKO DIRU LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK

LEHENA.- Araudiaren helburua.

Zalduondoko Udalak euskararen normalkuntza lortze aldera eta, bereziki, herritarren artean hizkuntza gaitasuna handitu eta erabilera areagotzeko asmoz, euskararen ikaskuntza bultzatzea erabaki du.

Horretarako, euskara ikastaroak burutzen dituztenei luzatu ohi zaizkien diru-laguntzei jarraipena emango die, baita hauek arautzeko oinarriak finkatu ere.

Halaber, Udalak bere urteroko aurrekontuetan xede horretarako aurrekontu-saila gordetzen dela bermatuko du.

BIGARRENA.- Aurrekontu kreditua.

Deialdi bakoitzaren bidez emango diren diru-laguntzak urteroko Aurrekontu Orokorrean zehaztutako diru-partidari lotuta egongo dira, eta urteroko deialdia onartzen duen Alkatetza Dekretuan zehaztuko da partida hori. Eskaerak diru-partida hori gaindituz gero, hainbanaketa egingo da eskaera guztien artean.

HIRUGARRENA.- Hartzaileak diru-laguntzak jasotzeko baldintza hauek bete beharko dira:

- Zalduondoko udalerriko erroldan egotea, bai ikastaroa hasterakoan, bai ikastaroa bukatutakoan.
- 16 urte baino gehiago edukitzea izena eman orduko.
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onetsitako euskaltegi eta ikastaroren batean matrikulatuta egotea.
- Barnelegia burutuz gero, aurreko puntuak esandakoak betetzea. Dena den, ikastaroak besterik ez dira diruz lagunduko, mantenua eta ostatua ikasleen esku geldituz.
- Aukeratutako ikastaroak Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzerako Oinarrizko Curriculumaren maila bat gainditzeko beste ordu jasotzen direla bermatu beharko du.
- Gutxienez ehuneko 80ko asistentzia bermatzea edo ikastaroa gainditzea.
- Euskara ikasteko beste diru-laguntzarik eskuratzeko aukera izanez gero (Merkataritza Ganbarak, HABE ... luzatutakoa) diru laguntza eskatzea.
- Ikastaroa Alkatetzaren urteroko deialdian zehazten den aldian eginga izatea, deialdia baino aurreko ikasturteari dagokiona

LAUGARRENA: Diru-laguntzen zenbatekoa:

Deialdi bakoitzeko diru-laguntzaren gehieneko kopurua urteroko deialdian finkatuko da. Kopuru horren muga barruan, laguntzak honela kalkulatu dira:

- Eskatzailea langabe egonez gero, matrikularen %100 jasoko du. Beti ere, araudian agertzen den diru-laguntza kopuru maximoa gainditzen ez badu. Hala balitz kopuru maximoa jasoko luke.

Zalduondoko Udala
Zalduondo (Araba)



Ayuntamiento de Zalduondo
Zalduondo (Álava)

Arbin Kalea, 3 • PK 01208 • IFK. P-0107000-B • Faxe 945 314534 • Elektronikoa : azalduondo@ayto.araba.eus

- b) Gainerakoek matrikula osoaren ehuneko 50 jasoko dute. Beti ere, araudian agertzen den diru-laguntza kopuru maximoa gainditzen ez badu. Hala balitz kopuru maximoa jasoko luke.
- c) Eskatzaileek ikastaroaren iraupenaren % 40 baino gehiago lan eginez gero, laguntza % 50ekoa izango da. % 40 baino gutxiago lan eginez gero, langabetu moduan hartuko da eta % 100 jasoko du
- d) Eskatzaile batek ikastaroa bitartean lanaldi partzialeko kontratua edukiz gero, eta lanaldia % 40koa (40 ordu asteen) baino txikiagoa bada langabetu bezala hartuko da eta matrikula osoa jasoko du. Lanaldia % 40koa baino handiagoa bada matrikularen % 50 jasoko du.
- e) Beste erakunde batetik diru-laguntza eskuratuz gero, eta matrikula baino kopuru baino txikiagoa jasotzekotan, Zalduondoko Udalak diferentzia luzatuko du, beti ere, araudian agertzen den diru-laguntza kopuru maximoa gainditzen ez badu.

BOSGARRENA: Aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Eskabide orria
- b) Eskatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia
- c) Ikastaroaren ezaugarriak zehazten dituen euskaltegiaren ziurtagiria (hasiera-bukaera egunak, asistentzia datuak...)
- d) Matrikularen ordainagiria.
- e) Langabe egonez gero, langabezian egondako aldiaren ziurtagiri ofiziala edo bizitza laborala.
- f) Jasotako beste diru laguntzen zenbatekoa adierazten duen agiria

SEIGARRENA: Bateragarritasuna beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin

Oinarri hauen babesean emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako ematen dituzten beste batzuekin, baldin eta diru-laguntzetan jasotakoa gastua baino gehiago ez bada. Euskara ikasteko bestelako laguntza edo diru-laguntzak eskatzeko aukera izanez gero (Merkataritza Ganbera, HABE...) eskatu egin behar dira. Onuradunak xede bererako beste diru-laguntza edo laguntzaren bat lortzen badu, udalari jakinarazi beharko dio. Beste laguntza batzuk jaso dituela eta horien zenbatekoa zein den jakin ondoren, udalak emango duen laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jaso diren gainerako laguntzekin matrikularen kostuan zer defizit geratu den hartuko da kontuan.

ZAZIPGARRENA: Eskarien aurkezpena.

- a) Zalduondoko Udaletxean aurkeztu beharko dira eskariak, bulegoetan luzatu eskabide orriaren bidez eta eskatu agiriekin batera.
- b) Eskariak aurkezteko epea urteroko deialdian zehaztuko da, eta igarotako ikasturteari dagozkionak izango dira.

ZORTZIGARRENA: Eskarien azterketa eta ebazpena.

Zalduondoko Udala
Zalduondo (Araba)



Ayuntamiento de Zalduondo
Zalduondo (Álava)

Arbin Kalea, 3 • PK 01208 • IFK. P-0107000-B • Faxe 945 314534 • Elektronikoa : azalduondo@ayto.araba.eus

- a) Aurkeztutako eskariei baldintzak betetzen dituzten aztertuko du Udalak eta ondoren, ebazpen baten bidez, onartuen eta baztertuen zerrenda egingo du.
- b) Baztertuei, halere, aukera emango zaie dokumentazioa osatzeko edota egoki joz gero errekurtsua aurkezteko, betiere, indarrean dagoen legediak ezartzen duenaren arabera.
- c) Beste erakunde batzuetatik laguntza jaso duten kasuei jarraipena egingo zaie, diru-laguntza horren zenbatekoa egiaztatzeko.

BEDERATZIGARRENA. laguntza galtzea eta dirua itzultzeko prozedura

Onuradunek laguntza osoa edo zati bat gal dezakete, aurrez espedienteia irekita, kasu hauetan:

- Daturen bat faltsutu bada eskaeran edota eskatutako agirietan.
- Laguntza erabili ez bada hura eman zen xede eta jardueretarako.
- Ezarritako betebeharren bat bete ez bada

HAMARGARRENA. Errekurtsiak

Oinarri arautzaile hauen aurka, xedapen orokorra izanik, ez da administrazio bidezko errekurtsorik onartuko; administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzenean aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

HAMAIKAGARRENA. Beste xedapen batzuk

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Zalduondoko Udalak ebatziko du. Aplikatu beharreko oinarritzko arauak hauek dira: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onesten baita.